

Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa, HeziLab, sortzen duen eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretu- proiektuaren gaineko ekarpenak

Hezkuntzan Librezaletik izenean

“Ikaskuntzarako berrikuntza zentroa sortu eta haren lanpostuen zerrenda onartzen duen” dekretu-proiektua aztertuta, Hezkuntzan Librezaletik kezka helarazten dugu, dokumentu honen bitartez, dekretu-proiektuaren testua desbideratu egiten dela 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena (aurrerantzean, Hezkuntza Legea), digitalizazioari dagokionean markatzen duen norabidetik.

Jarraian nabarmentzen ditugu, besteren artean, bereziki esanguratsutz hartzen ditugunak, digitalizazioaren inguruko norabideari dagokionean:

3. artikulua. Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioak. k) Digitalizazio etikoa eta arduratsua. Pertsonen aukera-berdintasuna, pribatutasunerako duten eskubidea eta ahaldu digitala bermatuz, zeina, ezinbestean, bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz soilik lortu baitaiteke, eta tresna digitalen integrazio pedagogikorako esparru batean oinarrituta egin beharko baita.

7. artikulua. Jakin. 4.— Tresna eta baliabide digitalen erabilerak izaera osagarria izango du, tresna horiekiko mendekotasunik sortu gabe eta garapen kognitiboa zainduz eta bermatuz, betiere adin-tarte eta nortasunaren garapen-maila bakoitzaren eskakizunak jasotzen dituen esparru pedagogiko batean kokatuta, eta baliatuz, harrimenaren pizgarriarekin batera, hezkuntza-sistemako etapa bakoitzean ikasleek beren buruei egiten dizkieten galderei erantzuteko pedagogia-dinamikez.

75. artikulua. Hezkuntza-berrikuntza. 3.— Berrikuntza bereziki sustatuko da irakaskuntza-metodologiaren alorrean eta baliabide teknologikoen erabilera etikoan eta arduratsuan, bai bakarkako irakaskuntzan eta ikaskuntzan, bai elkarlanekoan edo beste edozein modalitatetan. Halaber, ikastetxearen kudeaketan eta antolaketan ere, proba pilotuetatik abiatu eta, haien eraginkortasuna ebaluatu eta egiaztatu ondoren, orokorki aplikatu ahal izango dira.

Hauen argitan, jendaurrean jarritako dekretu-proiektuaren testuak aipatu gabe uzten ditu digitalizazio prozesuen eta hauek gauzatzeko bitarteko teknologikoen nolakotasuna, eta askotan bigarren maila batean geratzen da beharrezko duten justifikazio pedagogikoa, digitalizazioa bera helburu (eta ez bide) bihurtuz. Ez da hau legearen testuaren izpiritua, eta dekretu-proiektu honek orohar harekin lerrokatzea falta duela estimatzen da.

Dokumentu honetan jasotzen ditugun gutxieneko ekarpen hauek, aipatu bezala, legeak markatutako norabide horretatik gehien desbideratzen diren artikulua eta puntuak legearen xedera berbideratzea dute helburu.

Kokapena eta jatorrizko testua

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak. b) Erantzun egokituak, arinak eta eraginkorrak ematea ikastetxeetako ikasleen, irakasleen eta irakasleen premia aldakor eta berehalakoei, iraultza teknologikoaren eta gizarte-eraldaketaren ondorioz, bai eta ingurumen- eta epidemiologia-erronken edo erronka pandemikoen ondorioz ere.

Ekarpenaren testua

b) Erantzun egokituak, arinak eta eraginkorrak ematea ikastetxeetako ikasleen, ~~irakasleen~~, eta irakasleen premia aldakor eta berehalakoei, ~~iraultza~~ **eraldaketa** teknologikoaren eta gizarte-eraldaketaren ondorioz, bai eta ingurumen- eta epidemiologia-erronken edo erronka pandemikoen ondorioz ere.

Azalpena

“Irakasleen” errepikatuta agertzen da. Garapen teknologikoak iraultza suposatzen duen ala ez eztabaidagarria izan daiteke, eta hein horretan, eta baita hezkuntza legearen formulaziora gerturatzeko ere, “iraultza teknologikoa” edo “iraultza digitala”ren aipamen guztiak “eraldaketa teknologikoa” edo “eraldaketa digitala”gatik aldatzea proposatzen da.

Kokapena eta jatorrizko testua

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak. d) Erronka berriak aurrerapenez, malgutasunez, moldagarritasunez, erresilientziaz eta eraginkortasunez onartzea, etengabeko berrikuntzaren bidez eta hezkuntza-bikaintasuna lortzeko helburuarekin.

Ekarpenaren testua

d) Erronka berriak aurrerapenez, malgutasunez, moldagarritasunez, erresilientziaz eta eraginkortasunez onartzea **hartzea**, etengabeko berrikuntzaren bidez **ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei mesede egiten dieten neurrian** eta hezkuntza-bikaintasuna lortzeko helburuarekin.

Azalpena

Erronkak kritikoki baloratu beharko dira onartu aurretik. Berrikuntzak ez luke berezko helburua izan beharko, hobekuntzak baizik.

Kokapena eta jatorrizko testua

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak. e) Ikastetxeak, ikasleak eta irakasleak etengabe egokitu daitezten digitalizazioaren eta iraultza teknologikoaren erronketara, bai eta larrialdi klimatikoaren testuingurutik eratorritakoetara ere.

Ekarpenaren testua

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak. e) **Baliabide teknologiko eta digitalak baloratu, aztertu eta dagokionean egokitzea ikastetxeen, ikasleen eta irakasleen erronka eta beharrei, larrialdi klimatikoaren testuingurutik eratorritakoei barne, beti digitalizazio etiko eta arduratsua bermatuz.**

Azalpena

Ikastetxeak, ikasleak eta irakasleak etengabe teknologiarara egokitu ordez, teknologiak ikastetxe, ikasle eta irakasleen zerbitzura egon behar du, hezkuntza legean jasotzen den bezala. Bestela, hezkuntza-komunitatea erdigunean kokatu beharrean, ez dagokion lehentasunezko leku hori teknologiarari egotziko genioke.

Kokapena eta jatorrizko testua

3. artikulua. – Jarduteko printzipioak. g) Etengabe ikaskuntza-metodologia berriak garatzea, alderatutako eredu aurreratuenak kontuan hartuta.

Ekarpenaren testua

g) Etengabe ikaskuntza-metodologia berriak baloratu eta garatzea, **arrakasta-ebidentzietan oinarrituta** alderatutako eredu aurreratuenak **egokienak** kontuan hartuta, **ezarritako helburu pedagogikoak betetzeko egiten duten ekarpenaren arabera.**

Azalpena

Ikaskuntza-metodologia berriak garatu aurretik, egokitasunean eta arrakasta-ebidentzietan oinarritutakoak lehenetsi behar dira, "aurrerapen" irizpide lausoko funtsa dutenei lehentasuna eman baino lehen.

Kokapena eta jatorrizko testua

4. artikulua. – Helburuak eta eginkizunak. 1.c) Irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesua hobetuko duten ingurune berri presentzial eta digitaletan aurrera egitea.

Ekarpenaren testua

1.c) Irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesua hobetuko duten ingurune berri presentzial eta digitaletan aurrera egitea **bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz, eta tresna digitalen integrazio pedagogikorako esparru batean oinarrituta.**

Azalpena

Legean jasotzen diren “ingurune berri” horiek izan beharreko nolakotasuna jasotzea garrantzitsu jotzen da puntu honetan, inon ez baita jasotzen dekretu-proiektuan.

Kokapena eta jatorrizko testua

4. artikulua. – Helburuak eta eginkizunak. 2.i) Prestakuntza-proiektuak garatzea eredu metodologiko berriekin, sortzen ari diren premiei aurrea hartuta, eta printzipio etikoetan, inklusiboetan eta kalitatezkoetan oinarritutako prestakuntza bultzatzea, pertsonengan zentratua, haien ongizate emozionalagatik eta ongizate emozionalarekiko, eta garapen profesionalerako.

Ekarpenaren testua

2.i) Prestakuntza-proiektuak garatzea eredu metodologiko ~~berriekin~~ **egokienekin**, sortzen ari diren premiei **erantzunez eta** aurrea hartuta, eta printzipio etikoetan, **arduratsuetan**, inklusiboetan eta kalitatezkoetan oinarritutako prestakuntza bultzatzea, pertsonengan zentratua, haien ongizate emozionalagatik eta ongizate emozionalarekiko, eta garapen profesionalerako.

Azalpena

Berrikuntzaren berbariazko balioa kuestionatzen da. “Eredu metodologiko berriak” garatu eta txertatu beharko dira egokiak diren heinean; irizpide nagusia beraz egokitasuna da, ez berrikuntza.

Kokapena eta jatorrizko testua

13. artikulua. – Digitalizazioaren eta berrikuntza teknologiko-pedagogikoaren arloa.

1. – Digitalizazioaren eta berrikuntza teknologiko-pedagogikoaren arloak eginkizun hauek ditu:

- a) Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailari laguntzea hezkuntza digitalizatzeko estrategia sustatzen.
- b) Irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen gaitasun tekno-pedagogikoak hobetzeko irakaskuntza-gaikuntzako planak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
- c) Material digitalak sortzea eta trukatzeko bultzatzea, ikasleentzat ikaskuntza-ingurune malguak diseinatzeko eredu izan daitezen.
- d) Ikasleen profil digitala garatzea eta konpetentzia digitalen aplikazioan sakontzea, ezagutza hobeto eskuratzeko motor gisa.
- e) Ikastetxeetan berrikuntza teknologiko-pedagogikoko proiektuen inplementazioa aholkatu, koordinatu eta ebaluatzea, eta ikastetxearen garapena erraztea, digitalki eskuduna den erakunde gisa.
- f) Ingurune birtual malguak eta ikasleen eta irakasleen arteko interakzioa sustatzen duten espazioak sustatzea, antolatua eta aldi berean malguak, banakako ikaskuntzara egokituak, ikuspegi inklusiboa eta zeharkakoa bermatuz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan teknologia digitalaren erabilera hobetzeko.
- g) Berrikuntza aurreratuko proiektuak bultzatzea adimen artifizialaren eta datuen analisiaren bidez, hezkuntza-arrakasta eta hezkuntza-sistemaren hobekuntza hobetzeko, erabilera etiko, garden, ekitatibo eta inklusiboaren bidez.
- h) Ezagutza garrantzitsua ikastetxeen egitura osora helarazteko beharrezkoak diren prozedurak ezartzea, barneko zein kanpoko sare-lana indartuz.
- i) Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko, unibertsitateekiko eta beste administrazio batzuekiko laguntza eta lankidetzaren bultzatzea.
- j) Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroko gainerako arloekin eta Inklusioa, Bizikidetzaren eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroarekin lankidetzaren aritzea.
- k) Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuordetzari laguntzea hezkuntza-sistemaren ebaluazioan, arlo horren eskumen-eremuan, ezartzen diren prozeduren bidez.

Ekarpenaren testua

...

d) Ikasleen **eta irakasleen** profil digitala garatzea eta **konpetentzia ahalduentze digitalaren** aplikazioan sakontzea, ezagutza hobeto eskuratzeko motor gisa.

e) Ikastetxeetan berrikuntza teknologiko-pedagogikoko proiektuen inplementazioa aholkatu, koordinatu eta ebaluatzea, eta ikastetxearen garapena erraztea, digitalki eskuduna den erakunde gisa, **digitalizazio etiko eta arduratsuaren norabidean.**

f) Ingurune birtual malguak eta ikasleen eta irakasleen arteko interakzioa sustatzen duten espazioak sustatzea, antolatuak eta aldi berean malguak, ~~banakako ikaskuntzara egokituak,~~ ikuspegi inklusiboa eta zeharkakoa bermatuz, irakaskuntza-ikaskuntza ~~prozesuetan~~ **prozesuak teknologia digitalaren erabilera hobetzeko, bitarteko teknologiko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenak erabiliz eta tresna digitalen integrazio pedagogikorako esparru batean oinarrituta .**

g) Berrikuntza aurreratuko proiektuak bultzatzea ~~adimen artifizialaren~~ eta datuen analisiaren bidez beti ere ebidentzietan oinarrituta, hezkuntza-arrakasta eta hezkuntza-sistemaren hobekuntza ~~hobetzeko~~ **helburu,** erabilera etiko, **arduratsu,** garden, ekitatibo eta inklusiboaren bidez.

...

Azalpena

Helburuak (ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen garaoen eta hobekuntza) eta bideak (digitalizazio etiko eta arduratsua, besteren artean; bitarteko auditagarri, berrerabilgarri, libre eta gardenen bidez) bereizi eta dagozkion ordenean jartzea proposatzen da. Hezkuntza prozesu soziala da, Hezkuntza Sistemaren ardura diren adinetan bereziki. Aurrerabide guztiak beti ere helburuei ekarpena egiten dieten neurrian eta ebidentzian oinarrituta egin beharko dira.

[AMAIERA]